



Av. Lehendakari Aguirre, 11 - 3º
48014 Bilbao
Tel.: 94 4764313
Fax: 94 4761980



EUSKADIKO
EDITOREEN
ELKARTEA



CÁMARA DEL LIBRO DE EUSKADI
EUSKADIKO LIBURU-GANBARA



Prensa oharra

Liburugintzaren sektoreak salatu nahi du Eusko Jaurlaritzak euskarazko kultura industriaren gainbehera eragozteko esku hartu ez izana

Derrigorrezko irakaskuntzako testu liburuen maileguaren eredia (Testu liburuen eta material didaktikoaren kudeaketa solidario eta parekiderako programa) sustatu eta onartu zuen Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, eta eredu horren aplikazioa dela-eta, zera adierazi nahi dute Euskadiko grafikogile, editore, banatzaile eta liburu dendek:

- Eusko Jaurlaritzaren jarrera salatu nahi dute, mailegu bidezko testu liburuen doakotasun eredia indarrean jarri izanak euskarazko kultura industrian eragin duen gainbehera eragozteko eta sektore horren bideragarritasuna bermatzeko neurririk hartu ez izanagatik.
- Euskarazko liburuen argitalpen industriaren biziraupena arriskuan egonik, elkarrizketarako borondaterik ez izatea eta sentsibilitaterik gabe aritzea leporatzen diote Hezkuntza Sailburu Tontxu Camposi.
- Deustuko Unibertsitateko Aisia Ikerketen Institutuko ikerketa talde batek mailegu sistemaren eragina eta ondorioak neurtzeko egindako ikerketa independentearen emaitzak kontuan hartu ez izana deitoratzen dute.
- Alderdi pedagogikotik modernoa eta eraginkorra baina, aldi berean, ekonomikoki bideragarria eta sozialki bidezkoa izango den zuzeneko laguntzen bidezko doakotasun eredu baten alde irakaskuntzako eragileek eta profesionalek emandako iritziak gutxietsi izana deitoratzen dute.

- Deustuko Unibertsitateak egindako txostenaren ondorioez ohartarazi nahi dute; izan ere, txosten horrek dioenez, mailegu sistemaren bidez doakotasun faltsuko eredu bat ezarriko da eta oso kalte larriak izango baitituzte alderdi hauek: “... irakaskuntza kalitateak, euskal kulturak, erkidego honetako hizkuntza egoerak eta liburuaren kultura industriak (bestela ere merkatu izugarri konplexu, txiki eta kostu finko altuekikoari aurre egin beharra duenak)”.
- Eta, era berean, gogorarazi nahi dute mailegu bidezko ereduaren egokitasuna Euskadiko Eskola Kontseiluak ere zalantzan jarri zuela, bere garaian; zehazki, EAEko ikastetxe publikoetan derrigorrezko irakaskuntzan testu liburuak eta material didaktikoa era solidario eta parekidean kudeatzeko programa arautzeko Agindu asmoaren berdintasun eta solidaritate printzipioak zalantzan jarri zituen erakunde horrek irizpen batean.

Sektorea, kopurutan

Euskadin 109 editore pribatu daude, eta Euskadiko Editoreen Elkarteari atxikitako argitaletxe pribatuak dira horietako 46, hau da, % 42,2. Espainian 1.426 argitaletxe daude, guztira, eta horien % 54,4 daude editoreen elkarte bati atxikita. Datu horien arabera, Euskadin daude Espainiako argitalpen enpresen % 7,64.

Enpresa elkarteei dagokienez, euskal enpresen % 16,5 bakarrik dira talde handi edo *holding* bateko kide. Euskal argitalpenen sektorea hainbat enpresa txikik osatua da (30); enpresa horiek urtean 18 milioi eurotik beherako fakturazioa dute, hau da, fakturazio osoaren % 63 hartzen dute.

Espainian 39.315 liburu denda eta saltoki daude, horietako 1.853, Euskadin. 10.000 biztanleko enpresen ratioan, Espainiako batez bestekotik 0,19 puntu beherago dago Euskadi. Euskadin 210 liburu denda daude, Estatuan dauden guztien (4.280) % 4,91. Araba da liburu denda gutxien dituen herrialdea (20), eta bera da 1.000.000 biztanleko ratorik txikiena duena ere (66,68). Beste muturrean Gipuzkoa dago, ratorik handienekoa (119,06).

Sektoreko zuzeneko enpleguen kopurua % 7,2 jaitsi da, 2005eko datuekin alderatuta, baina orain 19 urte baino % 91,7 handiagoa da.

2005 eta 2006 bitarteko fakturazioan Euskadin gertatu da aldaketa negatibo bakarra, Espainiako editore elkarte guztiak kontuan hartuta (% -2,6). Era berean, behera egin du Euskadiren fakturazioak Espainiako fakturazio osoan zuzen pisuak: % 2,8koa izan zen, 2005ean, eta % 2,6koa, 2006an.

2006. urtean, 3.637 lan argitaratu ziren Euskadin; kopuru horrek erakusten duenez, goranzko joera nagusitu da 2001. urteaz geroztik. Aldiz, urteko ekoizpena 7 milioi aletik gorakoa da, baina, 2005. urtearekin alderatuta, % 10,9 jaitsi da.

Euskadin argitaratzen diren lan guztien % 29,9 testu liburu ez-unibertsitarioak dira; eta Espainian, berriz, % 23,6koa da ehuneko hori. Batean nahiz bestean, liburu denden bidez merkaturatzen dira, nagusiki, testu liburu ez-unibertsitarioak; % 47,6 hartzen dute, Espainian, eta % 42, Euskadin.

Euskarazko argitalpenak

Gaur egun, 149 eragile editorek dihardute estatuan eta Ipar Euskal herrian euskarazko argitalpenen esparruan; erakunde pribatuak dira horietako 116, eta publikoak, gainerako 33ak. 2006an, 1.710 lan argitaratu ziren euskaraz; horietako % 85,8, Euskadiko Autonomia Erkidegoan. Euskarazko argitalpenek Euskadiko argitalpen guztien % 40,3 eta fakturazio osoaren % 43,9 hartzen dute, Euskadiko Argitalpenen Barne Merkataritzari buruzko 2006ko ikerketaren arabera. EAEn 2006an euskaraz argitara emandako lan guztiak kontuan hartuta, testu ez-unibertsitarioak dira % 29,9, eta euskarazko fakturazio osoaren % 64,4 osatzen dute.

Euskal Autonomia Erkidegoan argitaratzen den materialetan euskarak duen tarteari dagokionez, euskaraz argitaratzen dira haur eta gazte liburuen % 55,1, testu ez-unibertsitarioen % 50,8 eta hiztegi eta entziklopedien % 84, EAEko argitalpen guztiak kontuan hartuta.

Euskadiko katalogoko izenburu bizien kopurua % 29,9 igo da azken lau urteetan; aldiz, euskarazko izenburuen katalogoa % 18,2 baino ez da handitu. 2006ko izenburu guztiak kontuan hartuta, euskaraz argitaratutako lanen % 24,6 dagozkio lehen hezkuntzari eta DBHri.

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Inma Roca

Mov. +(34) 619 23 33 05